

## **Zurtz nago**

Hasier Etxeberria

*Berria*, 2004-10-05: IX.

Ama eta aita, biak, ditugu gurean bizirik. Osasun ederrean biak ere, zorionez. Eskerrik asko. Nondik, orduan, zurtasun erabateko hau? Zergatik tristezia itzel eta bakardade astun hau?

Ez gara sekula maisuen eta akademien zale izan. Umetatik dakargu akatsa. Onartu ditugun ikasgai bakanak, soilik izan dira ikasgai ez balira bezala eman izan zaizkigunak. Didaktikotasunaren usaina ez zaigu jasangarri gertatu sekula. Areago, aski zen maisuaren maisu jarrera, haren menetik ihes egin genezan, irakaspenik batere gabe gera gintezen. Beste modu batera esanda, oharkabean ikasi dugu dakigun apurra. Ikasten ari ginela konturatu gabe ikasitakoa dugu ondare bakar. Zaila zaigu halakooi maisu aitortza inori egitea baina bai, aitortu egin behar dut: zurtz nago.

Martin Ugalderi ikasitako guztiak, Ugaldek erakusten ibili gabekoak izan baitira. Berez berezkoak, maisu-nahi lanik hartu gabe emandakoak. Hari ikusitakoak dira denak edo, nahiago bada, harengan ikusitakoak. Pertsona eta pertsonaiaren arteko sintonia perfektuan, betiere. Ugalderengan ez baitago bereizterik bata eta bestea: pertsona eta lana. Lehenak eramaten zuen hura bigarrenera, eta alderantziz, etengabeko hobekuntza batean.

Ugaldek ederki ezagutzen zuen bere burua eta bazekien ibiliaren bidean soilik zegoela egitekoa. Atarian geldirik dagoen goldea, uhertu egiten dela, alegia. Bazekien bere egiazko gurarien ezagutzak arrazoiz betetzen zuela bere jarduera etengabea. Eta zinez gizabidezkoak ziren haren desioak oro: herri bat, hizkuntza bat, kultura bat... denak gizabidez eraikitakoak. Berdin zitzaizkion, gainera, zailtasunak eta etsaiaren handiak, bidean aurkitutako sasi guztiak. Bidea ez zegoen sekula kolokan edo zalantzan. Bidea egin beharreko zerbait zen, nor izateko lehen betekizun ezinbestekoa.

Zenbat eta gaitzagoa izan arerioa, orduan eta argiagoa behar zuen jokabideak. Zenbat eta ahulagoak, txikiagoak eta zatikatuagoak izan geu, orduan eta handiago behar zuen denok elkartu eta batera bultzatzeko ahaleginak. Alferrik joango zinen harengana ñabarkeriekin. Gizakia ederki ezagutzen zuen eta bazekien berezkoa duela giza-abereak berekoikeria. Entzun ere ez zituen egiten horrelakoak eta dotorezia izugarri esango zizun denborarik ez alferrik galtzeko, badagoela denontzat nahibesteko zeregina. Izatekotan, etsaiaren akatsak interesatzen zitzaizkion, horiek bai, haien pitzatuetan barrena abiatu eta aukera oro ahalbeste profitatzeko.

Hori guztia eta gehiago egiten zuen hark denbora guztian, beti eta egunero, geure begitxoon aurrean. Eta nolako gizatasunean! Haren maitasuna, uholdeka etorriko zitzaizun begiradan eta hitz gozoetan. Haren kemena kutsatu egiten zen, haren lanerako grina, eredu bilakatzen zen. "Idatzi eta idatzi, horixe egin behar zenuke», esaten zidan, "ez denbora askorik galdu beste ezertan". Berari eskainita dago nire liburuetoako bat, Bost

idazle izenekoa, gogaide eta eredu izan bainuen lan hartan ere. Nola adierazi hemen Martini zenbat zor diodan? Ana Marik bakarrik daki hori. Eta euren hiru seme-alabek. Haiek zurtz eta denok zurtz. Baita neu ere: maisuzurtz.